

NAFARROAKO KULTURA-LANBIDEEN DIAGNOSTIKOA: **laburpena**

2022ko martxoa

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2020ko maiatzean, aho batez, ebazpen bat onartu zuen. Ebazpen horretan, Nafarroako Gobernuari kultura-lanbideei buruzko Foru Legearen proiektu bat bultzatzeko eskatzen zitzaion

Lege-proiektu horren helburua kulturako lanbideak beren tipologian, kualifikazioan, gaitasunetan eta bitartekoetan aintzatesteko beharrari erantzutea izango litzateke, bai eta behar bezala garatzeko jardunbide egokiak eta kode deontologikoak sortzea ere. Horregatik, Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak beharrezkotzat jo du lehenik eta behin Nafarroako kulturako lanbideei buruzko diagnostiko bat egitea, Ikerpartners enpresari eskatuta.

1. ZEIN DA DIAGNOSTIKOAREN HELBURUA?

Kulturaren sektoreak behar bezala identifikatzen ez dituen eta/edo lan-arloan behar bezala araututa ez dauden jarduerak/profilak identifikatzea, beste sektore ekonomiko batzuk bezala, eta, beraz, beste jarduera batzuen antzeko arreta eta aintzatespenik jasotzen ez dutenak identifikatzea.



Zertan datza barne-prospektiba?

2. ZER IKUSPEGI METODOLOGIKO APLIKATU DUGU?

Barne-prospektiban aztertu eta kontrastatu egiten ditugu (antzekotasunak, desberdintasunak, kointzidentziak eta abar identifikatzeko) nazio mailan, nazioartean eta Nafarroako lurraldean bertan dauden erreferentzietan identifikatutako kultura-sektore/-jarduerak. Kontrastatutako erreferentziak hauek izan dira:

- **EUROSTAT** eta bere lan metodologikoak kulturaren jardura eta okupazioen sailkapenen inguruan.
- **Estatistikako Institutu Nazionala (EIN)** eta jarduerak (Jardura Ekonomikoen Sailkapen Nazionala - JESN 2009) eta okupazioak (Okupazioen Sailkapen Nazionala - CNO 2011) sailkatzeko estatu mailan erabiltzen diren erreferentzia estatistiko nagusiak.
- **Kultura Ministerioa** eta Kultura Enpleguaren Estatistika.
- **Kulturaren Euskal Behatokia** eta kultura hainbat ikuspegitatik aztertzeko garatzen dituen estatistikak eta azterlanak.
- **Institut national de la statistique et des études économiques (INSEE)** eta bere estatistika eta azterlanetan aplikatzen dituen kultura-jardura eta okupazioen sailkapenak.
- **Observatoire de la culture et des communications de Québec (OCCQ)** eta bere estatistika eta azterlanetan aplikatzen dituen kultura-jardura eta okupazioen sailkapenak.

Zertan datza kanpo-prospektiba?

Kanpoko prospektiban, Nafarroako kultura-lanbideak identifikatzen ditugu, lau ikuspegitatik egindako analisiaren bidez arreta berezia eskatzen dutenak:

- **Erregulazio-maila:** soldadari, lan-osasunari, prestakuntzari, prestazioei eta abarri dagokienez, okupazioari buruzko arau-garapenik dagoen ala ez. Hori berariazko legeen edo alderdi horiek arautzen dituzten hitzarmen kolektiboen bidez egin daiteke. Okupazioen azterketan ikusi dugu horietako batzuek laguntza/definizio/aitorpen handiagoa behar dutela eremu horietan, eta, horregatik, arreta bereziko okupazio gisa identifikatu ditugu.
- **Langile publikoen pisua:** okupazioetan funtzionarioak egoteaz edo ez egoteaz ari gara, figura horrek lan-arloko legeria propioa duelako, deialdi publikoetan haien profila definitzen duelako, etab. Beraz, erregulazio- eta definizio-maila handiko okupazioak dira, alderdi horiek garatzeko arreta espezifikorik beharko ez luketenak.
- **Beste sektore batzuetako estaldura:** kulturatzat hartzen diren eta dagoeneko lan- eta zerga-materialean eta abarretan Kultura ez den beste arlo batzuetatik (Turismoa, Merkataritza, Industria, etab.) artatuta dauden lanbideak dira, eta, beraz, ez dute arreta berezirik behar alderdi horiek garatzeko.
- **Beste eremu edo kategoria batzuetako sailkapena:** azterlan honen ondorioetarako, edukiagatik kulturaltzat jotzen

diren baina erreferentziako jarduera eta okupazioen sailkapenetan argi eta garbi halakotzat definitzen ez diren lanbideak dira. Halakorik ezean, beste jarduera-sektore batzuetan edo kulturaz kanpoko lanbide-kategorietan sartzen dira, eta kultura-politiken ekintzatik kanpo geratzen dira berebiziko garrantzia duten gaietan, hala nola laguntza edo prestazio berezietan, alderdi fiskaletan, lanekoetan edo prestakuntzakoetan, eta abar. Hori dela-eta, arreta bereziko kultura-lanbidetzat hartzen ditugu.

Honako prozesu honi jarraitu zaio ikuspegi metodologikoa aplikatzeko:



3. ZER EMAITZA LORTU DUGU?

Prozesuaren ondorioz, Nafarroako kultura-okupazioen mapa identifikatu dugu, eta bi analisi-maila hauteman ditugu:

A • Gaur egun lan, zerga, araudi, prestakuntza eta abarren arloan behar besteko arreta jasotzen duten lanpostuak.

Honakoak:

- Araudi-garapen zehatzagoa eta zabalagoa duten lanbideak, soldadari, zergei, lan-osasunari, prestakuntzari eta abarri dagokienez estaldura eskaintzen dietenak.
- Funtzionarioen presentzia handia denez, berezko legeria dute (administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen estatutua) lan-arloan, eta beren dinamika propioak dituzte; gainera, beren profilen ezaugarriak oso zehaztuta daude enplegu-deialdi publikoetan.
- Kultura-lanbidetzat sailkatutako lanbideak, baina betetzen dituzten zereginen izaeragatik edo horiek garatzeko erabiltzen dituzten prozesuengatik administratiboki beste sektore ekonomiko batzuetatik (Merkataritza, Industria, Turismoa) artatzen direnak.

Zer egitea proposatzen da? bilakaeraren jarraipena egitea.

B • Kultura-sektorearentzat gutxiago araututa edo identifikatuta egoteagatik arreta berezia behar duten lanpostuak


Honakoak:

- Legeria espezifikorik, hitzarmen kolektiborik edo bestelako araurik ez duten lanbideak, aipatutako alderdietan arreta gutxiago jasotzen dutenak.
- Kulturako lanbideak, kulturakoak ez diren jarduera/okupazio kodeetan edo kategoria profesionaletan sailkatuta, erreferentziazko jarduera eta okupazioen sailkapenetan definizio eskasa dutelako. Egoera horren ondorio negatiboak: kultura-politikearako ikusezin bihurtzen dira berebiziko garrantzia duten gaietan, hala nola, aparteko laguntzak edo prestazioak, alderdi fiskalak, lanekoak edo prestakuntzakoak, etab.; kultura-lanbide gisa berariazko aitortpenik ez dutenez, ezin dute lanbide-esperientzia hori egiaztatuta kultura-espektroko lanpostu jakin batzuk lortzeko.

Zer egitea proposatzen da? laguntza/definizio/ aintzatespen handiagoa ematea, diagnostiko honen azterketa-foku gisa kokatuz.

bi
analisi-maila

kultura-lanbideen mapa



1. Ikerketa honen ondorioetarako kultura-kudeatzailearen lanbidea lehentasunez jotzat jotzen bada ere, ez da aztertzen, KUNA Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarte (DGC) sustatzen ari den diagnostiko batean sakon aztertzen ari baita, Nafarroako kultura gaietan eskumena duen departamentuaren laguntzarekin.

4. ONDORIO GISA

- Kultura-lanbideak kokatzen diren hiru kultura-sektore handi identifikatu dira: ondarea, kultura-ekintza eta kultura- eta sormen-industriak.
- Arreta bereziko lanbideen bolumen handiena kultura-ekintzaren sektorean dago. Bestalde, arreta espezifikorik behar ez duten baina etengabeko jarraipena behar duten lanbide gehienak kultura- eta sormen-industrietan daude.
- Arreta handiena behar duten lanbideak sorkuntza eta interpretazio artistikoarekin lotzen dira. Garapen handiena dutenak prozesu industrialekin lotzen dira.
- Ondarearen sektoreari lotutako lanbideek analisiaren bi alderdiak erakusten dituzte: batetik, enplegu publikoaren presentzia handia txertatzean garapen-maila zabala duten okupazioak aurkitzen ditugu; eta, bestetik, kultur politiketarako ikusezinak diren okupazioak daude, eta, beraz, arreta berezia behar dute.